HORIXE DISEÑO

El Gobierno de Navarra, por medio de la Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos, quiere sumarse a la celebración del Día Internacional de los Derechos Humanos con una oferta de actividades que ayuden a conocer diferentes realidades y a reflexionar sobre ellas. Este año, además, la ONU ha fijado el 70 aniversario de la aprobación de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en 1948, como motivo central de la campaña que impulsa cada 10 de diciembre. Los actos programados son un llamamiento a toda la sociedad a trabajar de forma constructiva por los Derechos Humanos.

La oferta va dirigida a públicos diferentes: a un público juvenil, infantil, familiar... Música, fotografía, cine-forum, cuentos y juegos serán las disciplinas que servirán para sensibilizar sobre los Derechos Humanos y proyectar una mirada abierta al mundo.

La Dirección General anima a todos y a todas a participar en las diferentes actividades y a colaborar en la construcción de una sociedad que respete los derechos de todas las personas.

# 10 DICIEMBRE DOMINGO

CONCIERTO

## ABA TAANO

**A LAS 19:00H**
**BALUARTE**



Aba Taano es un quinteto vocal Ugandés compueso por Nabbaale Harriet (Mezzo), Nkugwa Mukisa Patrick (Barítono), Kamoga Morris (Bajo), Mayanja Louis (Bajo) y Ssenteza Derrick (Bajo y Director), que revoluciona la manera de cantar góspel. Un quinteto que surge de un proyecto humanitario llevado en Uganda por la pequeña ONG *Música para salvar vidas*, donde los componentes de Aba Taano se han transformado hoy en los padrinos y madrinas de los niños y niñas que conviven en el orfanato en Kireka.

**Entrada libre;** retirada en taquilla a partir del 24 de noviembre.

# 12 DICIEMBRE MARTES

FAMILIA OSOARENTZAT EKUATORE GINEAKO

## IPUINAK JOLASAK ABESTIAK

**A LAS 17:30H**
**BALUARTE**

### IDOIA SANCHEZ Y ESTRELLA NDONG

Para niñas y niños de hasta 9 años.
**En Euskera y Fang.**

Espectáculo participativo dirigido a niños y niñas que engloba en sí cuentos, juegos y canciones. Podrá participar toda la familia, ya que la actividad que dirigen **Idoia Sánchez** y Estrella Ndong está montada para que disfrute toda la familia.

**Estrella Ndong** es de Guinea Ecuatorial y enseñará cuentos y juegos que ella misma disfrutaba de pequeña. Habrá ocasión de conocer tanto las diferentes formas de ocio de este país africano, como el idioma fang, ya que los cuentos y los juegos los contarán en euskera y en fang.

**Inscripción** en:
pazyconvivencia@navarra.es

# 13 DICIEMBRE MIÉRCOLES

TALLER

## DESTELLOS EN LA OSCURIDAD: SIRIA

**DE 17:00 A 20:00H**
**BALUARTE**

### CON EL FOTÓGRAFO RICARDO GARCÍA VILANOVA

Ricardo García Vilanova es *freelance* fotógrafo y cámara de vídeo desde hace quince años. Se ha especializado en zonas de conflicto y crisis humanitarias. Durante los últimos cinco años ha cubierto las primaveras árabes (Libia, 2011; Siria, 2011-2017). También ha trabajado en países como Afganistán, Irak, Yemen, Nigeria, Chad, Gaza, Líbano o Haití, entre otros.

**Inscripción** en:
pazyconvivencia@navarra.es

**DEL 27 DE NOVIEMBRE AL 20 DE DICIEMBRE**

BALUARTE

**EXPOSICIÓN: DESTELLOS EN LA OSCURIDAD: SIRIA**

# 14 DICIEMBRE JUEVES

DOCUMENTAL

## MUROS

**A LAS 19:00H**
**GOLEM BAYONA**

### TERTULIA CON EL DIRECTOR PABLO IRABURU

Nunca en la historia de la humanidad se habían construido tantos muros. Jamás habían existido tantas vallas, verjas, alambradas, zanjas y murallas. Esta película narra historias reales de personas que viven a ambos lados de muy distintos muros.

**Pablo Iraburu** es fundador y CEO de Arena Comunicación Audiovisual, y profesor de Documental en la Universidad de Navarra. Lleva más de 20 años dedicado a la producción de documentales.




**Entrada libre**; retirada en taquilla a partir del 24 de noviembre.

# 15 DICIEMBRE VIERNES

## CUENTOS JUEGOS CANCIONES

DE GUINEA ECUATORIAL PARA TODA LA FAMILIA

**A LAS 17:30H**
**BALUARTE**

### IDOIA SANCHEZ Y ESTRELLA NDONG

Para niñas y niños de hasta 9 años.
**En Castellano y Fang.**

Espectáculo participativo dirigido a niños y niñas que engloba en sí cuentos, juegos y canciones. Podrá participar toda la familia, ya que la actividad que dirigen **Idoia Sánchez** y Estrella Ndong está montada para que disfrute toda la familia.

**Estrella Ndong** es de Guinea Ecuatorial y enseñará cuentos y juegos que ella misma disfrutaba de pequeña. Habrá ocasión de conocer tanto las diferentes formas de ocio de este país africano, como el idioma fang, ya que los cuentos y los juegos los contarán en castellano y en fang.

**Inscripción** en:
pazyconvivencia@navarra.es

# DÍA INTERNACIONAL DE LOS DERECHOS HUMANOS

70 AÑOS



## DERECHOS HUMANOS

DEL 10 AL 15 DE DICIEMBRE DE 2017

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bidez, bat egin nahi du Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Errealitate ezberdinak ezagutzera eman eta euren inguruko hausnarketa egiteko aukera luzatu nahi du. Aurten, gainera, NBEk urtero abenduaren 10ean bultzatzen duen kanpainaren gai nagusia 70.urteurrena izango da, 1948an onartutako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala gogoan. Antolatutako jarduerekin gizarteari dei egin nahi zaio Giza Eskubideak modu eraikitzailean lantzen jarrai dezan.

Eskaintzak publiko ezberdinetara iritsi nahi luke: gazte, ume, familia… Musikaren, argazkigintzaren, zine-forumaren, ipuinen eta jolasen bidez Giza Eskubideekiko sentsibilizatu eta mundura begirada ireki bat zabaldu nahi da.

Zuzendaritza Nagusiak jarduera ezberdinetan parte hartzera eta pertsona ororen giza eskubideak errespetatuko dituen gizarte bat eraikitzen laguntzera animatzen ditu herritarrak.

# 10 ABENDUA IGANDEA

KONTZERTUA

## ABA TAANO

19:00ETAN
BALUARTE



Aba Taano Ugandako boskote kantari bat da, Nabbaale Harriet (Mezzoa), Nkugwa Mukisa Patrick (Baritonoa), Kamoga Morris (Baxua), Mayanja Louis (Baxua) eta Ssenteza Derrick-ek (Baxua eta Zuzendaria) osatua, gospel estiloa abesteko era berezi bat duena. *Música para salvar vidas* GKE txikiak Ugandan sortutako proiektu humanitario batean du jatorria taldeak. Aba Taanoko kideak gaur egun Kirekan dagoen umezurtegiko haurren aitabitxi eta amabitxi bihurtu dira.

**Sarrera librea**; azaroaren 24tik aurrera leihatilan jasotzeko aukera.

# 12 ABENDUA ASTEARTEA

FAMILIA OSOARENTZAT EKUATORE GINEAKO

## IPUINAK JOLASAK ABESTIAK

17:30EAN
BALUARTE

IDOIA SANCHEZ ETA ESTRELLA NDONG

9 urte arteko haurrentzat.
**Euskaraz eta Fangeraz.**

Haurrei zuzenduriko ikuskizun parte hartzailea, ipuinak, jolasak eta abestiak biltzen dituena. Familia osoa bertaratu daiteke, familian gozatzeko jarduera baita **Idoia Sanchezek** eta Estrella Ndongek eskaintzen dutena.

Ekuatore Gineakoa da **Estrella Ndong** eta berak txikitan entzundako ipuinak eta gozagai izandako jolasak jarriko dituzte bertaratzen direnen eskura. Afrikako herrialde honetako aisi-jolasak eta bertako fangera hizkuntza ezagutzeko aukera izango da, ipuinak eta jolasak euskaraz eta fangeraz ere kontatuko baitituzte.

pazyconvivencia@navarra.es helbidean **izen-ematea.**

# 13 ABENDUA ASTEAZKENA

TAILERRA

## DISTIRA ILUNTASUNEAN: SIRIA

17:00ETATIK 20:00ETARA
BALUARTE

RICARDO GARCÍA VILANOVA ARGAZKILARIAREKIN

*Freelance* argazkilaria eta kamera da orain dela hamabost urtetik, eta aditua gatazka eremuetan eta krisi humanitarioetan. Azken bost urteotan, Udaberri Arabiarraren (Libia, 2011; Siria, 2011-2017) berri eman du, eta, besteak beste, Afganistanen, Iraken, Yemenen, Nigerian, Txaden, Gazan, Libanon eta Haitin egin du lan.

pazyconvivencia@navarra.es helbidean **izen-ematea.**

AZAROAREN 27TIK ABENDUAREN 20RA

BALUARTE

ERAKUSKETA: DISTIRA ILUNTASUNEAN: SIRIA

# 14 ABENDUA OSTEGUNA

DOKUMENTALA

## MUROS

19:00ETAN
GOLEM BAYONA

PABLO IRABURU ZUZENDARIAREKIN TERTULIA

Ez da inoiz orain bezainbat hesi, burdin-sare, txarrantxa, lubaki eta harresi egon. Milioika kilometro dira planetaren luze-zabalean. Film honek harresi arras ezberdin horien alde bietan bizi diren pertsonen zinezko istorioak kontatzen ditu.

**Pablo Iraburu** Arena Comunicación Audiovisual-en sortzaile eta burua da, eta baita Dokumental irakaslea ere Nafarroako Unibertsitatean. Hogei urtetik gora daramatza dokumentalak ekoizten.




**Sarrera librea**; azaroaren 24tik aurrera leihatilan jasotzeko aukera.

# 15 ABENDUA OSTIRALA

## CUENTOS JUEGOS CANCIONES

DE GUINEA ECUATORIAL PARA TODA LA FAMILIA

17:30EAN
BALUARTE

IDOIA SANCHEZ ETA ESTRELLA NDONG

9 urte arteko haurrentzat.
**Gaztelaniaz eta Fangeraz.**

Haurrei zuzenduriko ikuskizun parte hartzailea, ipuinak, jolasak eta abestiak biltzen dituena. Familia osoa bertaratu daiteke, familian gozatzeko jarduera baita **Idoia Sanchezek** eta Estrella Ndongek eskaintzen dutena.

Ekuatore Gineakoa da **Estrella Ndong** eta berak txikitan entzundako ipuinak eta gozagai izandako jolasak jarriko dituzte bertaratzen direnen eskura. Afrikako herrialde honetako aisi-jolasak eta bertako fangera hizkuntza ezagutzeko aukera izango da, ipuinak eta jolasak gaztelaniaz eta fangeraz ere kontatuko baitituzte.

pazyconvivencia@navarra.es helbidean **izen-ematea.**

# GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

70 URTE



GIZA ESKUBIDEAK

2017KO ABENDUAREN 10ETIK 15ERA

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra